

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Urdulizko Udala****Dirulaguntzak emateko Ordenantza arauaile orokorraren behin betiko onarpena.**

Dirulaguntzak emateko ordenantza arauaile orokorraren hasierako onarpena «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» (136. zenbakia, 2022eko uztailaren 18koa) eta Udalaren web orrian argitaratu zenetik jendaurreko informazioaren arauzko epea igaro denez, inolako alegaziorik aurkeztu gabe, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean ezarritakoaren arabera, Dirulaguntzak emateko ordenantza arauaile orokorraren testua osorik argitaratzen da.

Ordenantza hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean osorik argitaratu eta 15 egunera sartuko da indarrean, ordenantzaren beraren azken xedapenarekin bat etorriz.

Urdulizen, 2022ko irailaren 1ean.—Alkatea, Javier Bilbao Lopateguil

**DIRULAGUNTZAK EMATEKO ORDENANTZA
ARAUEMAILE OROKORRA****ZIOEN AZALPENA**

Urdulizen gizarte-egitura egunez egun haziz doa. Hala gertatzen ari da ikuspegi kuantitatibotik, baina, aldi berean eta batez ere, erkidegoaren, partaidetzaren eta konpromisoaren kontzientzia areagotzen ari da bizitza-moderno honek ematen dizkigun eremu konplexuetan: kultura, elkartasuna, berdintasuna, kirola, boluntariora, ingurumena eta gizartearen eta kulturartekotasunaren bizikidetzak guneak antolatzea, gizarte-partaidetza eta herritarren eraikuntza...

Gizarte-jarduera zabal hori dela eta, udalerrriak garatzen dituen gizarte- eta kirol-ekimeneko programa eta jarduera anitzetan gero eta eskatzaile eta hartzaile gehiago daude.

Urdulizko Udala jakitun da udalerriko gizartearentzat, bai zuzeneko aktore eta sustatzaileentzat, bai onuradunentzat, jarduerak balio erantsi handia duela, eta aurrekontu-partida progresiboak eman ditu, elkarteei lana errazteko. Era berean, gizartearen ikuspegitik haien jarduera aintzatesteko eta baloratzeko balio dute.

Bestalde, 2004ko otsailaren 18an Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra indarrean jarri zen, eta oinarritzko legea denez, Espainiako estatuan edozein administrazio publikok, udalak barne, ematen duen laguntza publiko orori eragiten dio.

Hori guztia ikusi da, eta, ondorioz, udal-ordenantza honekin beste urrats bat eman nahi da Udalaren finantza-sistema arrazionalizatzeko prozesuan, eta aragintzako berrikuntzak nahiz legediak dituen zehaztapen teknikoak ditu.

Araudi hau administrazio-jarduketa guztia arautu behar duten arauketa onaren printzipioetan oinarritzen da, besteak beste, beharra eta eraginkortasuna, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikulua xedatutakoaren arabera. Gainera, dirulaguntzen jarduera-arlo zehatzean, berdintasunaren, publikotasunaren, gardentasunaren eta objektibotasunaren printzipioak erabiltzen dira.

I. XEDAPEN OROKORRAK**1. artikulua. — Xedea**

Ordenantza honen xedea da Urdulizko Udalak dirulaguntzak emateko araubide juridiko orokorra arautzea, baldin eta udal-eskumenak osatu edo ordezte aldera onura publikoko edo interes sozialeko ekimenak eta jarduerak sustatzen badira.

2. artikulua. — Dirulaguntzaren kontzeptua

1. Dirulaguntzat jotzen da funts publikoen diru-erabilera oro, Udalak pertsona edo erakunde publiko ala pribatuei emanez gero eta honako eskakizun hauek betetzen badira:

- a) Onuradunen zuzeneko kontraprestaziorik gabe ematea.
- b) Ematean helburu zehatza betetzea, proiektua gauzatzea, jarduera burutzea, portaera berezia hartzea (egina edo garatzear), edo egoera bati erantzutea, eta onuradunak zehazten zaizkion betekizun material edo formalak betetzea.
- c) Finantzatutako proiektuak ekintzak, jokabideak edo egoerak onura publikoko edo interes sozialeko jarduera bultzatu ala helburu publikoa sustatu nahi izatea.

2. Ordenantza honen aplikazio-eremuan ez daude sartuta honako diru-ekarpen hauek:

- a) Udalaren ekarpenak globalean erakunde publikoen jarduerak, besteak beste, partzuergo, mankomunitate, fundazio, elkarte, enpresa-erakunde publiko, eta abarrenak, finantzatzeko, Udalak ordezkartza badu. Horiei urtero ekarpen ekonomikoak egiten zaizkie aurrekontuak finantzatzeko.



- b) EUDEL Euskadiko Udalen Elkarteari edo Tokiko Araubidearen Oinarriari buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen bosgarren xedapen osagarriaren arabera beste edozein udalerriren elkarteri ordaindutako kuotak.
- c) Udalbatzan ordezkaritza duten talde politikoei emandako dirulaguntzak funtzionamendu-gastuei erantzuteko.
- d) Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrak aurrez ikusten dituen gainerakoak.

3. artikulua. — Dirulaguntzen izaera eta helburua

1. Dirulaguntza orok xede publikoari edo interes sozialari erantzungo dio, betiere hori sustatzea tokiko administrazioari badagokio. Eskuzabaltasun hutsari erantzuteko dirulaguntzen erabakiak erabat deuseztatuko dira.

2. Dirulaguntzak borondatezkoak eta aldi baterakoak izango dira, eta edozein unetan ezeztatu edo murriztu daitezke, legean edo arauetan ezarritakoa izan ezik. Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzak aldatuz gero eta, nolanahi ere, arauetan baimentzen diren kasuez kanpo bestelako ekarpenak batuz gero, dirulaguntza ematen duen ebazpena aldatu ahalko da.

3. Ezingo dira dirulaguntzak eman jarduera ekonomikoek merkatuan lehia askea mugatu edo kolusioa eragiten badute, lehia defendatzeko Estatuko eta Europako araudiak xedatutakoarekin bat etorritz.

4. Dirulaguntzaren zenbatekoa, bera bakarrik edo beste dirulaguntza edo laguntza batzuekin batera, ezin da izan inola ere dirulaguntza jasotzen duen jardueraren kostua baino handiagoa.

5. Urdulizko Udalak aurretiaz laguntzaren bat eman badu, horrek ez die inolako eskubiderik emango eskatzaileei, eta ez dira irizpide erabakigarri gisa kontuan hartuko berriro ere dirulaguntzak emateko ordutan.

6. Dirulaguntzak emateak ez du inolako kontratu-harremanik ekarriko, ez zibila, ez lanekoa, ez administrazioekoa, ez beste edozein motatakoa, pertsona edo erakunde onuradunaren eta Urdulizko Udalaren artean.

7. Dirulaguntzak honako printzipio hauekin bat kudeatuko dira:

- a) Publikotasuna, gardentasuna, norgehiagoka, objektibotasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza.
- b) Eraginkortasuna Udalak finkatutako helburuak betetzerakoan.
- c) Efizientzia baliabide publikoak erabiltzerakoan eta ematerakoan.

8. Dirulaguntzen hartzaileek jaso baino lehen ezinbestez justifikatu beharko dituzte aurretik hartutako dirulaguntzak eta Udalarekin zerga-betebeharrak eguneratuta dituztela. Gerora, jaso dituzten funtsak nola erabili dituzten justifikatu beharko dute.

9. Jasotako funtsen erabilera justifikatzearen eskakizuna betetzen ez bada edo dirulaguntza beste helburu batzuetara bideratzen bada ala onuradunei ezarritako eskakizunak betetzen ez badira, nahitaez jaso dituzten zenbatekoak eta dirulaguntza ordaindu zenetik itzultzen den egunera arteko berandutze-korrituak ordainduko dira, ordenantza honek xedatutako prozedurari jarraikiz.

4. artikulua. — Aurrekontu-aurreikuspena

1. Udalak dirulaguntza ematea baimentzeko erabakia hartzen duenean, aurretik aurrekontu-izendapena izan beharko du, eta fiskalizazioaren izapidea beteko da, Aurrekontua Emateko Udal Arauak eta Udal Fiskalizazioari buruzko Araudiak xedatutakoaren ildotik.

2. Dirulaguntzen erabakiak erabat deuseztatuko dira, aurretik aurrekontu-izendapen egoki eta nahikorik ez badute.

5. artikulua. — Dirulaguntzen plan estrategikoa

1. Udalak, dirulaguntzak ematea proposatzen duenean, dirulaguntzen plan estrategikoa batean zehaztu beharko ditu horien aplikazioarekin lortu nahi dituen helburu eta



efektuak, horiek lortzeko behar duen epea, aurreikusten dituen kostuak eta beraien finantzaketa-iturriak, baina betiere, aurrekontu egonkortasunerako helburuak bete behar dituzte.

2. Plan estrategikoa aurrekontuak onesten direnean formula daiteke eta aurrekontuen agiriaren barruan txertatuko da. Bestela, plan autonomoa formulatzeko aukera dago, aurrekontuaren izapideetatik aparte. Halakoetan, Osoko Bilkurak berariaz onartu behar du. Nolanahi ere, dirulaguntzak onetsi edo aldatzeko aurretik edo aldi berean plan estrategikoa onetsi ala aldatu beharko da.

6. artikulua. — *Dirulaguntzak emateko eskakizunak*

1. Dirulaguntzak emateko honako baldintza hauek bete behar dira:
 - a) Organo emaileak eskumena izatea.
 - b) Kreditu egokia eta nahikoa izatea dirulaguntza ematearen ondorioz sortzen diren betebeharrak ekonomikoei erantzuteko, 4. artikuluko xedatutakoaren arabera.
 - c) Emateko prozedura ordenantza honetan eta aplikaziokoak diren gainerako arauetan xedatutakoari jarraikiz izapidetzea.
 - d) Aldez aurretik gastua fiskalizatzea.
 - e) Organo eskudunak gastua onestea.

7. artikulua. — *Dirulaguntzak emateko prozedurak*

1. Dirulaguntzak emateko ohiko prozedura norgehiagoka izango da. Prozedura horren babesean, dirulaguntzak aurkeztutako eskaerak alderatuz ematen dira aurretik oinarri arauemaileetan eta deialdian ezarritako balorazio-irizpideen arabera hurrenkera ezartzeko, eta deialdian erabilgarri dagoen kredituaren barruan ezarritako mugarekin, aipatutako irizpideak aplikatuz baloraziorik onenak lortu dituztenei esleitzeko.

Hala eta guztiz ere, dirulaguntzaren oinarri arauemaileek eskakizunak betetzen dituzten eskaeren artean hurrenkera ezartzeko eskakizunaz salbuetsi dezakete, aurkezte-epea amaitutakoan eskaeren kopurua kontuan hartuta, deialdian izendatutako kreditua nahikoa bada.

2. Salbuespenez, betiere oinarri arauemaileek hala aurrez ikusten badute, organo emaileak onuradunen artean dirulaguntzaren zenbateko osoa hainbanatuko du.

3. Dirulaguntza hauek zuzenean eta behar bezala arrazoituta eman ahal izango dira:

- a) Udaleko aurrekontu orokorrekin izenez aurrez ikusitakoak, hitzarmenetan edo dirulaguntza horien araudian jasotako terminoetan.
- b) Lege-mailako arauaren bidez ezartzen bazaio administrazioari eman behar duela edo zenbatekoa. Halakoetan, berariazko araudiaren arabera emateko aplikatu behar den prozedurari erreparatuko zaio.
- c) Salbuespen modura, interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko arrazoi egiaztuengatik, edo behar bezala justifikaturiko beste arrazoi batzuek, deialdi publikoa egiteko eragozpenak daudenean dirulaguntzak.
4. Dirulaguntzaren zenbatekoak ezingo du deialdiak zehaztutakoa gainditu.

8. artikulua. — *Onuradunak*

1. Dirulaguntzen onuraduna izango da jarduera egin behar duen pertsona, dirulaguntza hori eman bazaio edo emateko legeko egoeran badago.

2. Oinarri arauemaileek hala aurreikusiz gero, onuraduna pertsona juridikoa den, dirulaguntzaren oinarri diren jarduera guztiak edo horien zati bat, haren izenean eta bere kontura, egiteko konpromisoa hartzen duten onuradunaren bazkideak ere pertsona onuradunatzat hartuko dira.

3. Oinarri-arauetan beren-beregi aurreikusita dagoenean, onuradunak izan daitezke pertsona fisiko edo juridiko publiko nahiz pribatuaren elkarteak, ondasun erkidegoak edota beste edozein motatako unitate ekonomiko edo ondare bananduak, nortasun juri-



dikorik izan ez arren, baldin eta proiektu, jarduera edo jokaerak burutzeko gauza badira edo dirulaguntza emateko arrazoi den egoeran badaude.

Nortasunik gabeko pertsona fisiko edo juridikoen elkarteak, publikoak edo pribatuak, direnean, berariaz jasoko dira idatziz, eskaeran eta emateko ebazpenean, taldekide bakoitzak onetsitako konpromisoak eta bakoitzari aplikatuko zaion dirulaguntzaren zenbatekoa. Horiek ere onuradun izango dira. Nolanahi ere, elkartearen ordezkari edo ahaldun bakarra izendatu beharko da, eta ahalorde askietsiak izango ditu, onuradun bezala elkarteari dagozkion eskakizunak betetzeko. Elkarteak ezingo da desegin Legearen 39. eta 65. artikuluek aurrez ikusten duten preskripzio-epea igaro arte.

Onuradun izateko eskakizunak Dirulaguntzen Lege Orokorren 13. artikuluan daude.

9. artikulua. — Onuradunaren betebeharrak

Araudi honetan arautzen diren dirulaguntzen pertsona edo erakunde onuradunek honako betebeharrak hauei erreparatu beharko dizkiete:

- a) Ordenantza honetan ezarritako arauak behar bezala betetzea, bai eta dirulaguntza emateko ebazpenean ezar daitezkeen baldintza bereziak ere.
- b) Emandako dirulaguntza onartzea. Emandako dagoela jakinarazten denetik zazpi egunetan pertsona edo erakunde onuradunek berariaz eta idatziz uko egiten ez badiote, onartutzat hartuko da.
- c) Emandako dirulaguntza eskatu zen helbururako erabiltzea. Dirulaguntza jaso duen jarduera garatzeko beharrezko baimen guztiak lortzea.
- d) Jendaurreko ikuskizunak eta jarduerak antolatzeari dagokionez, indarreko araudia (Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren abenduaren 23ko 10/2015 Legea) eta jarduera-eremuari aplikatu dakiokeen Estatuko nahiz Erkidegoko gainerako araudia betetzea.
- e) Diruz lagundutako jarduera dela eta, sustapen-elementuetan eta kartel, testu edo agiritan Urdulizko Udalaren babesletza aipatzea. Kartelak EAEko bi hizkuntza ofizialetan editatuko dira, eta, horretarako, behar denean, bai eta ahal denean ere, Udalaren aholkularitza izango da. Nolanahi ere, kartelak ipintzeari buruzko udal-araudia beteko da.
- f) Diruz lagundutako jarduera edo ekitaldia hobe garatzeko Udalak eskatzen duenean, lankidetzan jardutea. Lankidetzan horri uko egiten bazaio, dirulaguntza-eskaera artxibatu edo azkendutzat jo daiteke. Halakoetan, dagoeneko eman den dirulaguntza itzuli beharko da, eta dagozkion zehapenak ezarriko dira.
- g) Helburu bererako beste edozein laguntza ekonomiko publiko edo pribatu lortzean jakinaraztea eta jasotako zenbatekoa berariaz adieraztea.
- h) Urdulizko Udalarekin azterlanak, inkestak edo estatistikak egitean lankidetzan aritzea eta, ahal denean, Urdulizko Udalak antolatutako jarduera, ekitaldi eta jaietan parte hartzea.
- i) Udalak egingo dituen egiaztapen-jarduerak onartzea.
- j) Noizean behingo ikuskizunetarako ematen diren dirulaguntzetan, gainera, proiektuan ezarritako jarduketan aldaketa guztien berri emango da, egin baino lehen; horrela, Udalak eskatu diren aldaketak egiteko baimena eman edo ukatu egingo du.
- k) Emandako zenbatekoa nola erabili den ondoren justifikatzea, ordenantza honen 17. artikulua xedatzen dituen baldintzetan.
- l) Sexuagatiko edozein diskriminazio saihesteko neurriak hartzea eta udal-eskumenekoak osatu edo ordeztu dituzten onura publikoko edo interes sozialeko ekimen eta jarduera guztietan emakumeek eta gizonek orekan lortu edo parte har dezaten sustatzea.

**10. artikulua.—*Erantzukizun zibila***

Pertsona edo erakunde eskatzailea diruz lagunduriko jardueraren antolatzaile bakarizat joko da; beraz, hura izango da erantzule zibil bakarra aipatutako jardueraren garapen ohikotik edo ezohikotik sortu daitekeen edozein ondare-erreklamazioaren aurrean. Horrelakoetan, Gortizko Udala balizko erreklamazio horietatik at geratuko da.

11. artikulua.—*Bermeak*

1. Honako kasu hauetan bermeak aurkeztu beharko dira:
 - a) Dirulaguntzaren oinarri arauemaileek hala zehazten dutenean.
 - b) Ordainketa aurreratuak edo kontura egiten direnean.
 - c) Hartutako konpromisoak betetzen direla ziurtatzeko.
2. Bermearen zenbatekoak aurrerakin gisa emandako zenbatekoak gehi % 20 osagarri estaliko ditu.
3. Bermea Gordailuen Kutxa Orokorraren Araudia onesten duen urriaren 27ko 937/2020 Errege Dekretuan aurrez ikusitako edozein prozeduraren bidez aurkeztu ahaliko da.
4. Emateko organo eskudunak bakarrik ados dezake kitatzea, aurrerakina justifikatu edo aurreratutako zenbatekoak itzuli ondoren.
5. Ondorengo ustezko hauetan ez da bermerik aurkeztuko:
 - a) Onuraduna administrazio publikoa denean.
 - b) Pertsona onuradun bakoitzeko dirulaguntzaren zenbatekoa 3.000 eurotik beherakoa denean.
 - c) Oinarri arauemaileek arrazoituta hala aurrez ikusten dutenetan.

II. NORGEHIAGOKAREN BIDEZKO ARAUBIDEAN EMATEKO PROZEDURA**12. artikulua.—*Hasiera***

1. Dirulaguntza eman baino lehen, espediente bat egin beharko da. Betiere ofizioz hasiko da, eta hurrengo ataletan xedatutakoarekin bat etorritik izapidetuko da.
2. Dirulaguntzak emateko oinarriak ordenantzen bidez onetsiko dira, eta gutxienez honako alderdi hauek zehaztuko dira:
 - a) Dirulaguntzaren xedea eta helburua definitzea.
 - b) Dirulaguntzaren onuradunak eta eskakizunak.
 - c) Eskaerak aurkezteko era eta epea.
 - d) Emateko prozedura.
 - e) Dirulaguntza emateko irizpide objektiboak eta, bidezkoa bada, horien haztapena.
 - f) Kide anitzeko organoaren (epaimahaia edo kalifikazio-batzordea) osiera.
 - g) Deialdiaren banako zenbatekoa edo hura zehazteko irizpideak.
 - h) Dirulaguntza emateko prozedura ebazte aldera organo eskuduna, ebazpena jakinarazteko epea eta administrazioaren isiltasunaren ondorioak.
 - i) Aurrekontu-kreditua dagoela idatziz jasoa uztea.
 - j) Onuradunen betebeharrak.
 - k) Diruz lagundutako jarduera zati batean egiteko hirugarrenekin azpikontratatzeari onargarria den.
 - l) Ordainketa aurreratuak eta kontura egindako ordainketak gauzatzeko aukera, bai eta kasuan-kasuan onuradunek aurkeztu beharreko bermeen araubidea ere.
 - m) Onuradunak dirulaguntza ematen den xedea bete izana eta jasotako funtsak aplikatu izana justifikatzeko epea eta modua.
 - n) Xede bera duten beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin bateragarritasuna edo bateraezintasuna, edozein administrazio edo erakunde



publiko edo pribatuk, estatukoak, Europar Batasunekoak eta nazioarteko erakundeek emandakoak.

- o) Dirulaguntza emateko ezarri diren baldintzak ez betetzearen ondoriozko mailaketa-irizpideak. Irizpide horiek aplikatuko dira onuradunak azkenik jaso beharreko zenbatekoa zehazteko edo, hala badagokio, itzuli beharreko zenbatekoa zehazteko, eta proportzionaltasun-printzipioaren arabera izan beharko dira.

3. Ofizioz hasteko betiere organo eskudunak deialdia onetsiko du, eta dirulaguntzak emateko prozedura garatuko da Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren II. kapituluak xedatutakoa kontuan hartuta eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen printzipioen arabera. Deialdiak halaberrez dirulaguntzetarako gehieneko zenbateko osoa eta aurrekontu-kredituak finkatuko ditu.

3. Udaleko Kontu-hartzaileak espedientea eta onespren-proposamena fiskalizatu-ko ditu.

4. Dirulaguntzak emateko oinarriak eta deialdia onestea Udalbatza Osoaren esku-mekoa da.

5. Deialdia eta oinarriak onesten direnean, Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratuko dira eta deialdiaren laburpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 20.8 artikuluan xedatutako prozedurari jarraikiz. Deialdiak ezinbestez Legearen 23. artikuluko edukia izango du.

6. Deialdiaren testu osoa erakunde emailearen iragarkien taulan argitaratuko da, onesten denetik eskaerak aurkezteko azkeneko egunera arte, deialdian xedatzen duen publikotasun handiagoa gorabehera.

13. artikulua. — Eskaerak hartzea

1.- Interesdunen eskaerak deialdiaren oinarrietan ezartzen den epean aurkeztuko dira. Berariazko eperik izan ezean, 15 egun baliodun izango dira, iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

2. Eskaerak eta dokumentazio osagarria deialdiaren oinarriek xedatutako moduan aurkeztuko dira, administrazio-prozedura erkideari buruzko araudian eta, zehazki, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikuluan aurrez ikusitako baldintzen arabera.

3. Oinarriek aurreikus dezakete agiri zehatzak aurkeztu ordez eskatzaileak erantzukizunpeko adierazpena egitea. Halakoetan, dirulaguntza emateko ebazpen-proposamena egin baino lehen, adierazpeneko datuak egiazkoak direla ziurtatze aldera, 15 egunetik behar epean dokumentazioa aurkezteko eska daiteke.

4. Oinarrietan eskatutako agiriak Udalak dagoeneko eskura baditu, eskatzaileak ez ditu berriz ere agiri horiek aurkeztu behar, baldin eta eskaerak idatziz jasoa uzten badu noiz aurkeztu edo eman ziren eta zer organo edo bulegotan egin zen, betiere azken prozedura amaitu baino bost urte lehenago.

5. Eskaerak deialdian eta oinarrietan xedatzen diren eskakizunak betetzen ez baditu, interesdunari gehienez 10 egunetan eskaera zuzen dezan eskatuko zaio, eta hala egiten ez badu, eskaera atzera egintzat joko dela ohartaraziko zaio, administrazio-prozedura erkideari buruzko legediak xedatutako baldintzetan.

6. Eskaerak epez kanpo aurkezten badira, eskaerak ezetsi ahalko dira, eta izapide gehiagorik egin gabe artxibatuko dira.

14. artikulua. — Instrukzioa

1. Dirulaguntzak emateko prozeduraren instrukzioa deialdian izendatzen den organoak egingo du.

2. Instrukziorako organo eskudunak ofizioz beharrezkotzat jotzen dituen jarduerak egingo ditu datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatzeko, horien baita formulatuko baita ebazpen-proposamena.



Eskaerak ebaluatzen direnean, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 22. artikuluko 1. atalean aipatzen den kide anitzeko organoak txostena emango du, eta hartan ebaluazioaren emaitzak zehaztuko ditu.

Instrukzio-organoak espediente eta kide anitzeko organoaren txostena ikusiko ditu, eta, behar bezala arrazoituta, behin-behineko ebazpen-proposamena formulatuko du. Interesdunei deialdian xedatzen den eran jakinaraziko zaie, eta interesdunek 10 egun izango dituzte alegazioak aurkezteko.

Entzunaldiaren izapidea egin gabe utz daiteke prozeduran ez bada azaltzen eta prozeduran ez bada kontuan hartu interesdunak azalduko egitate, alegazio eta frogak besterik. Halakoetan, ebazpen-proposamena behin betikoa izango da.

Interesdunen alegazioak aztertuko dira, eta behin betiko ebazpen-proposamena formulatuko da. Dirulaguntza eman nahi zaien eskatzailea edo eskatzaileak eta zenbatekoa azalduko dira, balorazio-irizpideen arabera egindako balorazioarekin batera.

Dirulaguntza emateko espedienteak instrukzio-organoaren txostena izango du, eta bertan adieraziko da organo horren eskura dagoen informazioaren arabera, onuradun guztiek dirulaguntzak jasotzeko betekizun guztiak betetzen dituztela.

15. artikulua. — Ebazpena

1. Ebazteko organo eskuduna Alkatetza da, deialdiaren oinarrietan kontrakoa xedatu ezean eta udal-organoak erabiltzen dituen eskuordetze-ahalmenak gorabehera.

2. Ebazpena epaimahaiak formulatutako proposamenara egokituko da, salbuespenez Alkatez, ebazpen arrazoiaren bidez, prozeduran arau-hauste astuna ikusten duenean izan ezik. Kasu horretan, legezketasunaren arau-hauste edo arau-hauste astun eta argira arte atzera egitea aginduko du. Halakoetan, Zuzenbidearekin bat datorren ebazpena emango du.

3. Ebazpenean azalduko dira dirulaguntza jaso duten eskatzaileak, zenbatekoa eta onuradunen betebeharrak eta, hala badagokio, ezetsi diren eskaerak.

4. Gehienez sei hilabetetan ebatziko dira, lege-mailako arauak edo Europar Batasuneko araudiak aurrez ikusitakoak zabalagoa xedatzen dutenean izan ezik. Epea deialdia eta oinarriak argitaratzen direnetik hasiko da zenbatzen, deialdiak ondoreak ondorengo datetara geroratzen dituztenean salbu.

5. Ebazpena administrazio-prozedura erkidearen araudiarekin bat jakinaraziko da ebazpena eman eta 10 egunen buruan. Gainera, legez dagozkion errekursoak azalduko dira.

6. Ebazpena emateko epea jakinarazi gabe amaitzen bada, interesdunei legitimatzen die administrazioaren isiltasuna dela eta eskaera ezetsizat hartzeko. Hala, egokiak iruditzen zaizkien administrazio- edo lege-errekursoak jarri ahalko dituzte.

16. artikulua. — Dirulaguntza ordaintzea

1. Bidezkoa bada, dirulaguntza onuradunak oinarri arauemaileetan ezarritako baldintzetan justifikatzen duenean ordainduko da.

2. Hala eta guztiz ere, justifikatu baino lehen, ordainketa aurreratua egin ahalko da urteko dirulaguntzen kasuan edo ohiko jarduerarako, bai eta bestelako finantzaketa-baliabideak nahikoak ez direlako, Urdulizko Udalaren dirulaguntzak jarduera gartzeko ezinbesteko finantzaketan laguntzen duenean ere, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 34.4 artikuluan aurrez ikusitakoaren arabera.

Nolanahi ere, ordainketa aurreratuek ez dute inola ere dirulaguntzaren % 80 gaindituko eta onuradunak eguneratuta izango ditu zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzak eskatzen dizkionak eta Urdulizko Udalaren aurreko ordainketa-betebeharrak edo itzul-tze-prozeduraren ondoriozkoak.

3. Dirulaguntzaren izaerak hala justifikatzen duenean, kontura ordainketak egin ahalko dira. Kontura egindako ordainketen barruan ordainketa zatikatuak egin daitezke diruz lagundutako jardueraren erritmoari erantzuteko, eta zenbatekoak aurkeztutako justifikazioaren arabera ordainduko dira.

**III. ZUZENEAN EMATEKO PROZEDURA****17. artikulua. — *Zuzenean ematea***

1. 7. artikulua 3. atalean adierazten diren ustezkoetan, espedientean, behar bezala arrazoituta, gastua onesteari atxikitako izapideak egingo dira, indarreko kontabilitate-eta aurrekontu-araudiaren arabera eta, bereziki, Aurrekontua Gauzatzeko Udal Arauak eta Udalaren Fiskalizazioari buruzko Araudiak aurrez ikusitako izapideei erreparatuko zaie.

18. artikulua. — *Aurrekontuei jarraikiz dirulaguntza izendunak emateko prozedura*

1. Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 22.2.a) artikuluan xedatzen denerako, tokiko erakundeek aurrekontu orokorretan aurrez ikusitako dirulaguntza izendunak dira, haien xedea, aurrekontu-zuzkidura eta onuraduna berariaz aurrekontuko gastuen egoterra-orrari azaltzen badira.

2. Dirulaguntza horiek emateko prozedura dirulaguntza egozten zaion aurrekontu-kredituaren kudeatzaileak ofizioz hasiko du edo, bestela, interesdunak eskatuta, eta emateko ebazpenarekin eta hitzarmenarekin amaituko da.

Atal honek aurrez ikusten duen edozein ustezkotan, oinarri arauemaileak izango dira emateko egintza edo hitzarmena Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrak xedatzen denerako.

Ebazpenak edo, hala badagokio, hitzarmenak honako alderdi hauek izango ditu:

- a) Dirulaguntzaren xedea eta onuradunak, aurrekontu-esleipenaren arabera.
- b) Gasturako aurrekontu-kreditua eta dirulaguntzaren zenbatekoa, bidezkoa bada, onuradun bakoitzarentzat banakatuta, zenbait badira.
- c) Xede bera duten beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin bateragarritasuna edo bateraezintasuna, edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatuk, estatukoak, Europar Batasunekoak eta nazioarteko erakundeek emandakoak.
- d) Dirulaguntzaren epeak eta ordaintzeko moduak, ordainketa aurreratuak eta kontura egindako ordainketak gauzatzeko aukera, baita onuradunek aurkeztu beharreko bermeen araubidea ere.
- e) Onuradunak dirulaguntza ematen den xedea bete izana eta jasotako funtsak aplikatu izana justifikatzeko epea eta era.

19. artikulua. — *Administrazioari lege-mailako arauak eskatzen diolako zuzenean emandako dirulaguntzak*

1. Dirulaguntza batzuk zuzenean ematen dira, lege-mailako arau batek administrazioari hala eskatzen diolako. Halakoetan, emateari edo zenbatekoari dagokionez, kontuan hartuko dira araua bera eta administrazioari berariaz aplikatu behar zaizkion gainerakoak. Arau haiek aurrez ikusten ez dutenerako Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrak eta ordenantza honek xedatutakoa modu ordezkatzailean aplikatuko da. Salbuespena izango da batean eta bestean publikotasunaren eta lehiaren printzipioei aplikatu dakiekeena.

2. Ematea zehazten duen legeak egituratze aldera erakunde emailearen eta onuradunen artean lankidetzat-hitzarmena egiteko eskatzen duenean, hari ordenantza honen 13. artikulua 2. atalean xedatutakoa aplikatuko zaio.

3. Artikulu honetan aipatzen diren dirulaguntzak ordaintzeko ekitaldian kreditu ego-kia eta nahikoa egongo da.

20. artikulua. — *Interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko arrazoi egiaztatuetatik edo behar bezala justifikaturiko beste arrazoi batzuetatik zuzeneko dirulaguntzak*

1. Ordenantza honen 7. artikuluko 3. atalaren c letran arautzen diren dirulaguntzak emateko ebazpenak gutxienez honako alderdi hauek izango ditu:

- a) Dirulaguntzaren xedea, bere izaera berezia eta interes publikoa, soziala, ekonomikoa edo humanitarioa ziurtatzen dituen arrazoiak ala, behar bezala justifikatuta, deialdi publikoa egitea oztopatzen duten beste arrazoi batzuk.



- b) Lege araubide aplikagarria.
- c) Onuradunak eta laguntzaren modalitateak.
- d) Emateko prozedura eta, bidezkoa bada, onuradunek eta, hala badagokio, erakunde laguntzaileek dirulaguntza nola erabili duten justifikatzeko araubidea.

21. artikulua.—Zuzeneko dirulaguntzak ordaintzea

1. Dirulaguntza onuradunak oinarri arauemaileek azaldutakoaren arabera justifikatzen duenean ordainduko da, eta ordainketa aurreratuetarako eta kontura egindako ordainketetarako arauari, ebazpenari edo hitzarmenari erreparatuko zaio, halakoetan horiek baitira oinarri arauemaileak.

IV. DIRULAGUNTZA PUBLIKOAK JUSTIFIKATZEA**22. artikulua.—Prozedura**

1. Justifikatzeko kontu ematea onuradunaren betebeharra da. Justifikazio hartan aitorlearen erantzukizunpean sartuko dira gastuaren jatorrizko frogagiriak edo kopia konpultsatuak ala baliozkotasun juridikoa duen beste edozein agiri, betiere dirulaguntza publikoaren xedea bete dela egiaztatzeko bada. Dirulaguntza publikoen berariazko oinarri arauemaileetan zehaztuko dira justifikazio-kontuak emateko modua eta epea.

2. Oro har, kasu bakoitzeko berezitasunak gorabehera, justifikazio-kontuak honako dokumentazio hau izango du:

- a) Jarduketa-memoria bat, dirulaguntzaren emakidan ezarritako baldintzak betetzen direla justifikatzen duena, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adieraziz.
- b) Memoria ekonomiko bat, egindako jardueren kostua justifikatzeko. Honako hau jasoko da bertan:
 - Jardueraren gastuen eta inbertsioen zerrenda sailkatua, honako hauek identifikatuta: hartzekoduna eta dokumentua, zenbatekoa, egite-data, eta, hala badagokio, ordainketaren data. Dirulaguntza aurrekontu baten arabera ematen bada, gertatutako desbideratzeak adieraziko dira.
 - Froga-balioa duten fakturak edo dokumentuak, merkataritza-trafiko juridikoan balio bera dutenak edo administrazioan eraginkortasuna dutenak, aurreko paragrafoan aipatzen den zerrendan jasota eta, hala badagokio, ordainketa egiaztatzen duten agiriak.
 - Erregistro ofizialean behar bezala inskribaturiko eta egiaztaturiko tasatzaile independentearen ziurtagiria ondasun higiezinak direnean.
 - Bidezkoa bada, lehen atalean aipatzen den zerrendan jasota dauden kostu orokorrak eta/edo zeharkakoak banatzeko irizpideak adieraztea, dirulaguntzaren oinarri arauemaileek, justifikatu gabe, oroharreko konpentsazioa aurrez ikusi dutenean izan ezik.
 - Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera edo dirulaguntza batzuen zerrenda xehatua, eta haien zenbatekoa nahiz jatorria adieraziko dira.
 - Onuradunak eskatu behar izan dituen hiru aurrekontuak, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 31.3 artikulua aplikatuz.
 - Erabili gabeko soberakinik badago, diru kopuru hori eta sortu dituen korrituak itzultzeko ordainketa-gutuna.

3. Hala ere, dirulaguntzaren xedea edo izaera kontuan hartuta, aurreko atalean aipatzen den dokumentazioa aurkeztu behar ez denean, oinarri arauemaileek zehaztuko dute justifikazio-kontuaren edukia.

4. Dirulaguntzak 60.000 eurotik beherakoak badira, dirulaguntza justifikazio-kontu sinplifikatuarekin justifikatu ahal izango da, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Araudia onesteko uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 75. artikuluan xedatutakoaren arabera.



5. Noizean behingo jarduera edo proiektuetarako dirulaguntzen kasuan, zuzenean ematen badira, gutxienez honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- Noizean behingo dirulaguntza eskatzen den jarduera edo ekitaldiaren proiektu zehatza, gutxienez, honako hauekin: proiektuaren deskribapena, jardueraren hartzaileak, helburuak eta jarduerak Urdulizko udalerrirako duen interesaren beraiazko aipamena, bai eta non eta noiz egingo den ere. Dirulaguntza emango zaion jarduerari edo proiektuari lotuta, eskatzaileak eskaeraren aurreko urtean edo urteetan egindako jardueren memoria.
- Eskaera egin aurreko urteko diru-sarreraren eta gastuen balantzea, dirulaguntza eskatzen den jarduerari edo proiektuari buruzkoa.
- Dirulaguntzak 30.000 eurotik gorako obrak egiteko eskatzen badira, eskaerari hiru egitaritze-aurrekontu erantsiko zaizkio, hautatu denaren justifikazio-memoriarekin batera, merkeena aukeratzen ez bada.

6. Dirulaguntzaz gain, diruz lagundutako jarduerak funts propioekin edo beste dirulaguntza edo baliabide batzuekin finantzatu badira, justifikazioak ziurtatuko ditu zenbatekoa, jatorria eta diruz lagundutako jardueretan funtsak nola aplikatu diren.

7. Dirulaguntzak egoera zehatzari erantzuteko ematen direnean, hartzaileak justifikatzeko eman baino lehen zuzenbidean onargarria den edozein bitarteko erabiliz egoera hori bakarrik ziurtatu beharko du, egiaztatzeko egin daitezkeen kontrolak gorabehera.

8. Dirulaguntza legean ezarritakoaren arabera justifikatzeko betebeharra ez betetzeak edo hura behar bezala ez justifikatzeak dirulaguntza itzuli beharra ekarriko du.

9. Justifikazioa alkatearentzako idatziaren bidez aurkeztuko da, eta lehen aipatu diren frogagiriak eta justifikazio-kontua erantsiko zaizkio.

10. Justifikazio-dokumentazioa aztertutakoan Alkatetzak ebatziko du.

23. artikulua. — Eskaerak baztertzea

Eskaerak ez dira kontuan hartuko pertsonak edo erakundeak Urdulizko Udalak aurretik emandako dirulaguntzen azalpen-memoria eta/edo dokumentuen justifikazioa aurkezteko badu.

24. artikulua. — Eskaera osatugabeak edo akastunak

Aurkeztutako eskaera edo erantsitako dokumentazioa osatu gabe badaude edo konpon daitezkeen akatsen bat badute, eskatzaileari eskatuko zaio gehienez 10 egun baliodunetan zuzentzeko. Epea errekerimendua jakinarazi eta hurrengo egunetik hasiko da zenbatzen. Era berean, jakinaraziko zaio egiten ez badu, eskaera atzera egintzat joko dela.

V. DIRULAGUNTZAK ITZULTZEA

25. artikulua. — Itzultzeko arrazoiak

1. Hurrengo kasuetan jasotako zenbatekoak itzuli beharko dira eta dirulaguntza ordaindu den unetik itzultzea erabakitzen den data edo, lehenago eginez gero, zordunak ordaintzen duen data bitartean dagozkion berandutze-korrituak eskatuko dira honako kasu hauetan:

- a) Dirulaguntza lortzeko, bete beharreko baldintzak faltsutu edo laguntza jasotzea galaraziko luketen datuak ezkutatzen direnean.
- b) Helburua, jarduketa edo proiektua zati batez edo osorik ez betetzea, edo diru-laguntza emateko oinarri den jokabidea ez izatea.
- c) Justifikatzeko beharra ez betetzea edo justifikazioa nahikoa ez izatea, Dirulaguntzari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 30. artikuluan, ordenantza honetan eta, hala badagokio, dirulaguntza arautzen duten arauetan ezarritakoaren arabera.
- d) Dirulaguntzaren berri emateko neurriak, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 18. artikuluko 4. atalean ezarriak, aplikatu beharra ez betetzea.



- e) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 14. eta 15. artikuluetan ezarritako egiaztapen eta finantza-kontroleko jarduketei traba egitea, aitzakiak edo oztupoak jartzea edo haiei uko egitea, eta kontabilitateko, erregistroko eta agiriaren zaintzaren arloko betebeharrak ez betetzea, baldin eta horren ondorioz ezin egiaztatuta bada hartutako funtsak zertarako erabili diren, helburua bete den, diruz lagundutako jarduerak benetan eta etengabe egin diren, eta helburu bera-ekin dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide gehiago jaso den nazioko edo Europako Batasuneko edozein administrazio eta erakunde publiko zein pribatu-rengandik edo nazioarteko erakundeengandik.
- f) Administrazioak erakunde laguntzaileei eta onuradunei ezarritako betebeharrak –onuradunok dirulaguntza ematen zaiela eta bereganatzen dituzten konpromisoak barne- betetzen ez direnean, baldin eta horrek helburuak lortzeko, jarduera egiteko, proiektua burutzeko edo dirulaguntza ematean aintzat hartu den jokabi-dea hartzeko erari eragin badio edo horrekin zerikusia badu.
- g) Dirulaguntza ematerakoan administrazioak erakunde laguntzaileei eta onura-dunei ezarritako betebeharrak eta eurek hartu dituzten konpromisoak ez bete-tzea (aurreko puntuko kasuak ez direnak), baldin eta horren ondorioz ezin bada egiaztatuta diruari ze erabilera eman zaion, dirulaguntzaren helburua bete den, diruz lagundutako jardueren errealitatea eta erregularatasuna, edo helburu be-rrerako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide gehiago dituen, beste administrazio batek, erakunde pribatu nahiz publikoek (estatukoak, Europako Batasunekoak nahiz nazioarteko erakundeak) emanak.
- h) Europar Batasunaren Itunaren 87. artikulutik 89.era bitartean xedatutakoa dela bide, dirulaguntza itzuli beharra dakarren erabakia hartzea.
- i) Dirulaguntzari buruzko arautegian aurreikusitako gainerako kasu guztiak.

Oro har, dirulaguntzak itzultzeko Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Le-gearen 36. artikulutik 43. artikulura xedatutakoa kontuan hartuko da.

26. artikulua. — Itzultzeko prozedura

1. Dirulaguntzak itzultzeko prozedura ofizioz hasiko da organo eskudunak hala era-bakita, bere ekimenez edo goragoko agindu baten bidez, beste organo batzuen eskaera arrazoituaren ondorioz edo salaketa baten ondorioz.
2. Dirulaguntza eman zuen organo berak egingo du itzulera eskatzen duen ebazpena.
3. Itzuli behar den zenbateko guztia edo partziala zehazteko, proportzionaltasuna-ren eta ekitatearen printzipioei erreparatuko zaie, kasu zehatz bakoitzaren inguruabarra-ren arabera.
4. Dirulaguntza itzuli behar dela egiaztatzen denean, organo eskudunak ebazpena emango du, eginkizun hori adierazteko. Ebazpena arrazoituko da, eta berariaz azalduko dira itzultzearen arrazoia, itzuli behar den zenbatekoa eta itzultzeko borondatezko epea. Ohartaraziko da epearen barruan itzultzen ez bada, premiamenduaren bidetara ekingo zaiola.
5. Itzultzeko espedienteak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Er-kideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen IV. tituluan ezartzen diren prozedu-ra-arauak beteko ditu.

VI. ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

27. artikulua. — Administrazioko arau-haustearen kontzeptua

Dirulaguntzen arloko administrazioko arau-hausteak dira Dirulaguntzei buruzko aza-roaren 17ko 38/2003 Legearen 52. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako ekintzak eta ez-egiteak, eta zabarkeriagatik ere zigortuko dira.

28. artikulua. — Zehapen-motak

1. Dirulaguntzen arloan arau-hausteak diru-zehapenen bitartez zigortuko dira, eta dagokionean diruzkoak ez diren zehapenak ipiniko dira.



2. Diru-zehapenak isun finkoak edo proportziozkoak izan ahalko dira. Diru-zehapen proportzionala bidegabe lortu, aplikatu edo justifikatu gabeko zenbatekoaren gainean aplikatuko da. Isun finkoa 75 eurotik 6.000 eurora bitartekoa izan daiteke, eta isun proportzionala bidegabe lortu, aplikatu edo justifikatu gabeko zenbatekotik hirukoitzera joan daiteke.

Diru-isuna jarriko da, ordenantza honen arabera itzuli behar izana gorabehera, eta kobratzeko aplikagarria izango da Bizkaiko Lurralde Historikoan tokiko administrazioaren indarreko aurrekontu-araudian zuzenbide publikoko diru-sarreretarako aurrez ikusten den araubide juridikoa.

3. Diruzkoak ez diren zehapenak arau-hauste astunen edo oso astunen kasuan jarri ahalko dira, eta honako hauek izan daitezke:

- a) Bost urtez, gehienez, Udalaren dirulaguntzak, laguntza publikoak eta abalak ezin lortu izatea.
- b) Bost urtez, gehienez, erakunde laguntzaile bezala ezin jardun izatea azaroaren 17ko 38/2003 Legeko dirulaguntzei dagokienez.
- c) Bost urtez, gehienez, administrazio publikoarekin kontratatzeko debekua izatea.

29. artikulua.— Zehapen-prozedura

1. Dirulaguntzen arloan zehapenak Alkatetzak erabaki eta ezarriko ditu. Administrazio-espedientearen bidez egingo da, eta, kasu guztietan, interesdunari entzungo zaio. Administrazio-prozedura erkidearen arloan Estatuko oinarritzko legediak eta Euskal Administrazio Publikoen zehapen-ahalmena erabiltzearen eremuan Euskal Autonomia Erkidegoko legediak xedatutakoarekin bat izapidetuko da.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Lehenengo Xedapen Gehigarria

Udal-ordenantza honetan aipatu ez denari dagokionez, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta arloan aplikagarriak diren gainerako araudiak aplikatuko dira.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Udal-ordenantza hau indarrean jartzen denean, maila bereko edo txikiagoko udal-xedapen guztiak indargabetuko dira, kontraesanean sartzen badira.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean osorik argitaratzen denetik zenbatzen hasita 15 egunera sartuko da indarrean.